Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua

# MEMORIA 2014

## GIZARTE-POLITIKAKO DEPARTAMENTUA



# AURKEZPENA

Aurkezten dizuegun memoriak 2014an zehar egindako jarduera nabarmenenak biltzen ditu. Xede du lanabes bat eskaintzea, kudeatutako programa eta zerbitzu guztiak kontsultatzeko eta aztertzeko, eta Gizarte Politikako Departamentuaren jardueren ikuspegi global eta zeharkako bat izateko.

Iaz, Gizarte Politikako Departamentuak 25.234 gipuzkoarri eman zizkien zerbitzuak eta prestazioak, hots, 2013an baino 1.000 pertsona gehiagori. Zenbatekoan ez ezik, aurrera egin da kalitatean ere, 2014an Kabia Organismo Autonomoa sortu baita.

Bigarren mailako gizarte zerbitzuen eta prestazioen sarea handitzea, nahiz eta aurre egin inguruko administrazioen gastu publikoen murrizketa dinamikei, ez da nahikoa Gipuzkoan dagoen zaintza eskaerari erantzuteko. Hori dela eta, bereziki garrantzitsua da Gizarte Zerbitzuen Mapa 2015-2017n jasotako planifikazioa egiaz betetzea, hartara zaintzarako eskubideak unibertsalizatzeko.

Departamentuarentzat, zaintzaile formalen lan baldintzak eta zerbitzuaren kalitatea lehentasun izan dira legealdia hasi zenetik, eta iaz familiaren zaintza informalaren egoeran zentratu ginen. Arrasaten eta Irunen egindako programa aitzindarien ondorioek bultzatu beharko gintuzkete gure prestazio eta zerbitzu sistemetan hainbat aldaketa egitera, hartara familiartekoen zaintza aurrera eramaten duten emakumeen baldintzak nabarmenki hobetzeko.

2014ko jarduera memorian bildutako jarduerek erakusten dute, Gizarte Politikako Departamentuaren konpromisoa ez ezik, Foru Gobernu osoaren konpromisoa, horrek ere lehentasunen ardatzean bizitzaren iraunkortasuna sustatzeko politika publikoak jarri baititu.

Aurrera egin bada ere, bada bidea oraindik zaintza duin eta unibertsalak eta existitzeko eskubidea osoki bermatzeko.

**Donostia, 2015eko ekainak 10**

**Ander Rodríguez Lejarza**

# INDIZEA

*1.- Sarrera* .......... *1*

**1.1 Xedea, ikuspegia eta balioak** .......... **1**

**1.2 Egitura eta funtzioak** .......... **2**

**1.3 Organigrama** .......... **3**

*2.- Jarduerak* .......... *4*

**2.1 Departamentuaren jarduerak** .......... **4**

**2.2 Departamentuko zuzendaritzen beste jarduera eta zerbitzu batzuk** .......... **16**

**2.3 Beste erakunde, departamentu eta erakunde batzuekin izandako partaidetza eta lankidetza** .......... **25**

*3.-Baliabideak eta programak* .......... *27*

3.1. BALORAZIOA, ORIENTAZIOA ETA KALIFIKAZIOA .......... 28
3.2. ARRETA GOIZTIARRA .......... 29
3.3. ALDI BATERAKO EGONALDIAK .......... 30
3.4. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA .......... 31
3.5. SENDIAN PROGRAMA .......... 32
3.6. LAGUNTZA TEKNIKOEN ETXETEK PROGRAMA .......... 33
3.7. TUTORETZA-ZERBITZUA .......... 34
3.8. ADINEKOENTZAKO EGOITZAK .......... 35
3.9. ADINEKOENTZAKO EGUNEKO ZENTROAK .......... 36
3.10. DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZAK .......... 37
3.11. DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZENTROAK .......... 38
3.12. BURUKO GAITZEN BAT DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZAK .......... 39
3.13. BURUKO GAITZEN BAT DUTEN PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZENTROAK .......... 40
3.14. BAZTERKETA-EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO EGOITZAK ETA GAZTEENTZAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK .......... 41
3.15. GIZARTERATZE-BEHARREI ERANTZUTEKO EGUNEKO ZENTROAK .......... 42
3.16. INDARKERIA MATXISTA JASATEN DUTEN EMAKUMEENTZAKO ZERBITZU ETA PROGRAMAK .......... 43
3.17. GIZARTE-LARRIALDIETAKO FORU-ZERBITZUA .......... 44
3.18. GIZARTERATZE-PROGRAMAK .......... 45
3.19. ZENTRO OKUPAZIONALAK .......... 46
3.20. BABESGABETASUN-EGOERAN DAUDEN ADINGABEKOENTZAKO HARRERA-ZERBITZUA .......... 47
3.21. BABESGABETASUN-EGOERAN DAUDEN ADINGABEKOENTZAKO FAMILIA-HARRERA ZERBITZUA .......... 48
3.22. ADOPZIOAREN SUSTAPENERAKO ETA LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZUA .......... 49
3.23. FAMILIAKO ETA GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOKO ESKU-HARTZE ZERBITZUA .......... 50
3.24. HAURTZAROA ETA NERABEZAROA BABESTEKO ZERBITZURA ZUZENDUTAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK .......... 51
3.25. MENDEKOTASUNARI BURUZKO 39/2006 LEGETIK ERATORRITAKO PRESTAZIOAK .......... 52
3.26. ALDIZKAKO BESTE PRESTAZIO BATZUK (PEK, GOF, DGL) .......... 53
3.27. BESTE ALDIZKAKO PRESTAZIO EKONOMIKO BATZUK (DBL) .......... 54

# 1.1 Xedea, ikuspegia eta balioak

**Gizarte-zerbitzuen sistema**ren eskumen-esparruan, herritarren **eskubideak** bermatzea eta **pertsona eta kolektiboen autodeterminazioa** bultzatzea dira gure izateko arrazoia. Horren bidez, **bizi-baldintzak hobetzen** eta Gipuzkoako **gizarte-kohesioa** indartzen laguntzen dugu, hori baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren **erantzukizun publikoa**. Beste eragile batzuekin elkarlanean egiten dugu lan hori.

Zerbitzua jasotzen duten pertsonen bizi-kalitatea sustatzera bideratutako **arreta-eredu** jakin bat definitu duen erakunde izan nahi du departamentu honek, besteak beste, printzipio hauetan oinarrituta:

- pertsonalizazioa
- osotasuna
- pertsonari arreta ematea bere harreman-sarea kontuan hartuta
- gertutasuna
- jarraitutasuna
- aurreikusteko / aurre hartzeko ikuspegia
- akonpainamendua
- jasotzaileen erantzukizuna
- autonomiaren sustapena
- eskubideen ikuspegia
- plangintza
- arreta jasotzen duten pertsonen/senideen partaidetza
- etengabeko hobekuntza
- etengabeko ebaluazioa
- langileen partaidetza
- ezagutza eta berrikuntza
- sare integratu bat sortzea tokiko erakundeekin eta hirugarren sektorearekin koordinazioan.

| BALIOAK |
| --- |
| √ Erantzukizun publikoa<br>√ Gardentasuna<br>√ Zerbitzuak pertsonetara bideratzea<br>√ Pertsona eta kolektiboen erantzukizuna, autonomia eta ahalduntzea<br>√ Pertsonalizazioa<br>√ Gertutasuna<br>√ Partaidetza<br>√ Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna<br>√ Justizia soziala<br>√ Gizarte- eta komunitate-sarea indartzea |

# 1.2 Egitura eta funtzioak

Gizarte Politikako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko 2012ko apirilaren 2ko 13/2012[1] Foru Dekretuaren arabera, hauek dira Gizarte Politikako Departamentuaren funtzioak:

- Mendekotasunen bat duten adinekoen arreta
- Desgaitasunen bat duten pertsonen arreta
- Arrisku larrian edo babesgabetasun-egoeran dauden adingabekoen arreta
- Adopzioak
- Gizarteratzea eta pobreziaren aurkako borroka
- Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arreta
- Gizarte-larrialdien arreta
- Garapenerako lankidetza
- Asoziazionismoa, boluntariotza eta partaidetza sustatzea
- Zerbitzuak baimendu, homologatu eta ikuskatzea
- Aplikatzekoa den araudiak emandako gainerako ahalmenak

Funtzio horiek aurrera eramateko, Gizarte Politikako Departamentuak zuzenean –bere bitarteko propioen bidez– edo ekimen pribatuarekin lankidetzan –Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko V. tituluan aurreikusitako formulen bidez– antolatzen du zerbitzu horien prestazioa.

Gizarte Politikako Departamentuaren egitura foru-diputatuaren zuzendaritzapean antolatzen da. Foru Gobernuko Kontseiluaren kide da foru-diputatua, eta hura da departamentuaren goi-organoa.

Gizarte Politikaren funtzioak betetzeko, bost zuzendaritza orokor, bi erakunde autonomo (Uliazpi Fundazioa eta Kabia) eta bost zerbitzu daude; horietan 164 lagunek egiten dute lan, eta % 75 emakumeak dira.

Aurrekontua (2)

2014ko ekitaldian, Gizarte Politikako Departamentuak **327.284.204 euro**ko aurrekontua izan du bere eskumenak zuzenean betetzeko; Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa-aurrekontuaren % 48,76 da hori.
Aurrekontu-gauzatzea % 99,67koa izan da.

- Aurrekontuaren banaketa:

| BALIABIDEA | AURREKONTUAREN % |
|---|---|
| ADINEKOEN ARRETA | % 39 |
| PRESTAZIO EKONOMIKOAK | % 22 |
| DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN ARRETA | % 15 |
| BABESGABETASUN-EGOERAN DAUDEN ADINGABEKOEN ARRETA | % 12 |
| INDARKERIA MATXISTA JASATEN DUTEN EMAKUMEEN GIZARTERATZEA ETA ARRETA | % 7 |
| INBERTSIO ETA EKIMEN SOZIALA | % 2,21 |
| GARAPENERAKO LANKIDETZA | % 1,20 |

[1] *Egitura Dekretua: https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2012/04/16/c1203501.pdf*
[2] *Aurrekontuari buruzko informazio xehatua: http://www4.gipuzkoa.net/ogasunanet/aurrekontuak/buscador.aspx?E=2014*

# 1.3 Organigrama



# 2. 1 Departamentuaren jarduerak

## 2.1.1 Arreta-datu orokorrak

Grafiko honetan, zentroetan nahiz zerbitzuen bidez arreta jaso duten pertsonen kopuruak ageri dira, baita prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen kopuruak ere.




Guztira, 25.334 laguni eman zaie arreta; horietatik % 60, 36 emakumeak dira.

Grafiko honetan, 2011-2014 epealdian arreta jaso duten pertsonen kopuruaren bilakaera ageri da(*).




*(*).2012an behera egin zuten aldizkako prestazio ekonomikoek Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeaketa Lanbideri transferitu zitzaiolako eta zerbitzuen kopuruak behera egin zuen Eusko Jaurlaritzak telealarma-zerbitzuaren ardura hartzearen ondorioz.*

2014an, 13.699 laguni egin zitzaizkien MBB, desgaitasun eta RAIko balorazioak; horietatik 7.884i lehenengo aldiz eta gainerako 5.815 lagunei aurretik egindako balorazioak berrikusi zizkieten.

## 2.1.2 Jarduera garrantzitsuenak eta 2014ko datu orokorrak

### Jarduera orokorrak

- 2014an, 41 plaza berri hitzartu dira gizarte-zerbitzuetan, eta honela banatu

| BALIABIDEA | PLAZA-KOPURUA |
|---|---|
| ADINEKOENTZAKO EGOITZAK | 15 |
| DESGAITUENTZAKO EGOITZAK | 14 |
| DESGAITUENTZAKO EGUNEKO ZENTROAK | 6 |
| ADINGABEKOEN EGOITZAK | 6 |
| **GUZTIRA** | **41** |

dira:

- Departamentuko kontratu berrien prozeduretan klausula sozialak txertatzen hasi dira, sektore publiko foraleko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzeari buruzko 2013ko uztailaren 17ko 4/2013 Foru Arauaren arabera.

- 2014ko abenduaren 19an, Zerbitzu Sozialen Erakundearteko Organoaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskal Autonomia Erkidegoko Saileko eta Gizarte Zerbitzuetako Maparen zirriborroak babestu zituen, erakundearteko finantziazio-akordio bat lortu eta zerbitzu, estaldura eta hedadura gehiagoren eskariak jasotzen zirela ikusirik. Akordio hori lortu ondoren, autonomia-mailan onartutako irizpideak aplikatuta, egokitu egin da 2015-2017rako Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen zirriborroa.

- 2014ko azaroaren 4ko 38/2014 Foru Dekretuaren bidez, 2011ko uztailaren 19ko Foru Dekretua aldatu da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren oinarrizko departamentu-egiturari buruzkoa, Kabia organismo autonomo berria sartu ahal izateko; hartarako, zuzendaritza nagusi berri bat sortu da, hain zuzen, Organismo Publikoen Zuzendaritza Nagusia.

- Gizarte-ekimenera zuzendutako laguntzen bidez, 169 diru-laguntza bideratu dira irabazi-asmorik gabeko Gipuzkoako 84 erakundetara, gizarte-laguntzako programak gauzatzeko, prebentzio- eta sentsibilizazio-programak aurrera eramateko eta ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak betetzeko.

### Mendekotasun- eta desgaitasun-egoeran daudenei emandako arreta

- 2014an, **Mendekotasunari Arreta Emateko 2013-2016rako Hobekuntza Plana** jarri da martxan. Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen bidez egindako eskumen-doikuntzari aurre egiten dio planak, eta mendekotasunen bat duten pertsonei arreta emateko politikak –bereziki, norbere ingurunea mantentzera zuzenduak– hobetzeko proiektu partekatu bat jasotzen du. 2014an, helburu hauek lortu dira:

  - Kabia organismo autonomoa sortu da, modu mailakatuan, lurraldeko adineko pertsonei zuzendutako 16 udal egoitzak kudeatzeko. Lehenengo, Villabonako, Zumaiako, Elgoibarko, Lasarte-Oriako eta Azkoitiko egoitzak hartuko ditu bere gain Kabiak. Gipuzkoan gizarte-

zerbitzuak zuzenean kudeatzeko eredurantz pausoak ematera bideratutako tresna garrantzitsua da.

- Ia milioi bat euroko laguntza bat onartu da udal egoitzek sortutako defizitari aurre egiteko.

- Akordio berria lortu da 87 udalekin, etxez etxeko laguntzen foru-finantziazioa doitzeko.

- Etxez etxeko laguntzek gure lurraldean duten etorkizunari buruzko hausnarketa partekatua egin da eta Mendekotasun Legearen laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonei etxean segimendua egiteko esperientzia pilotu bat egin dira (batez ere, Familia Inguruneko Zaintzetara bideratutako Prestazio Ekonomikoari edo FZPEri buruzkoak).

➢ Mendekotasunen bat duten pertsonei arreta emateko eredua aztertzeko eta horri buruz hausnartzeko proposamen bat egin da, egoitza-zerbitzuen eta eguneko zentroen foru-sarea antolatzeko helburuarekin. 2014an, zentroetako kudeaketa-erakundeekin osaturiko lan-talde bat jarri da martxan.

➢ Balorazio-prozesuak erabat publifikatzeko prestaketa-lanak egin dira: ereduaren definizioa, beharrak (antolakuntza, pertsonak, ekipamendua, informazio-sistemak, trebakuntza, ibilgailuak), estrategiak, epeak…

➢ Parte hartzeak:

- IMSERSOk antolaturiko lan-taldean parte hartu da desgaitasunen balorazio-baremo berria definitzeko.
- Pertsonen profiletan oinarrituriko orientazio-prozesua egiteko oinarrien definizioan.
- Arreta Goiztiarra arautzeko Dekretua egiteko Eusko Jaurlaritzak gidaturiko lan-taldean.

➢ Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldea martxan jarri da, Balorazio, Orientazio eta Kalifikazio Saileko teknikariek gidatuta. Talde horretan parte hartzen dute foru-aldundiek, Osakidetzak, Osasun eta Hezkuntza Sailak eta Eudelek, arreta behar duten haurrei aplikatu beharreko planak baloratu, bideratu eta definitzeko.

➢ Zahar egoitzetako **itxarote-zerrenda** handitu egin da (167 lagun gehiago), hau da, % 31ko igoera izan da 2013arekiko. Halaber, azpimarratu behar da eguneko zentroetan sartzeko itxarote-zerrenda ere asko handitu dela: 187tik 230era pasatu da urte amaieran.

➢ Gipuzkoako zahar-etxeetako langileen lan-baldintzen hobekuntza sustatzen jarraitu da.

## Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen gizarteratzea eta arreta

➢ Indarkeria matxistaren biktimen arretarako hobekuntza hauek diseinatu dira, eta 2015ean jarriko dira martxan:

- Arreta soziojuridikoko zerbitzua hobetzea
- Arreta psikologikoa hobetzea
- Indarkeria matxistaren eta sexu-erasoen biktimei arreta emateko zerbitzuen dibertsifikazioa hobetzea.

Halaber, eredu kontzeptual eta terminologikoa definitu da Berdintasun Zuzendaritzarekin batera.

- Hausnarketa bat egin da larrialdi-zerbitzua koordinatzeko.

- Pobrezia eta Gizarte Bazterketako II. Inkesta egiteko informazio-bilketari ekin zaio, eta 2015ean egingo dira publiko emaitzak.

- Oinarrizko Errenta Sarearekin elkarlanean, Herritarren Oinarrizko Errentari buruzko XIII. Sinposioa egin zen Donostian, eta beste politika ekonomiko baterako proposamen zehatzak aurkeztu eta eztabaidatu ziren bertan.

- Urte honetan, behera egin du gizarteratzeko etxeetan arreta jaso duten lagunen kopuruak. Hala, 860 lagun izan ziren 2013an eta 794 izan dira 2014an, eguneko zentroen bidez eredu komunitarioago bat bultzatzeari, akonpainamendu espezializatuaren programari eta laguntza ekonomikoei esker. Bestalde, gizarteratzeko eguneko zentroen erabiltzaile-kopurua 2013koa baino % 22 handiagoa izan da, eta 291 laguni arreta ematetik 356ri ematera pasatu da. Horietatik gehienak gizonak izan dira (% 83).




## Haurtzaroaren eta nerabezaroaren babesa

- Haurtzaroari dagokionez, urteko jakinarazpen-kopuru altua mantendu da (188 jakinarazpen, guztira adingabeko 367 laguni eragiten diotenak), eta kontraesankorra dirudien arren, zenbaki altu horiek modu baikorrean hartu behar dira, bat baitatoz Haurtzaroa eta Nerabezaroa Babesteko Zerbitzuak haurren babesgabetasun-egoerak ahalik azkarren detektatzeko jarritako helburuarekin

- Bestalde, familia-harrerak goranzko joera izaten jarraitzen du. Abenduaren 31n, guztira, 376 laguni eman zitzaien arreta (327+49 gazte, adin nagusitasunera iritsi arren, deslotura-programan mantentzen direnak).

- Soilik nazioarteko 17 adopzio egin ziren. Beheranzko joera hori jatorrizko herrialdeen araudietan egindako aldaketei zor zaie, baita krisi ekonomikoaren eraginei ere.

- 2014an, informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat jarri zen martxan, haurrentzako eta nerabeentzako harrera-familiak bilatzeko helburuarekin.

- Safecare programa (haurrenganako babesgabetasun-jarrerak nabaritu zaizkien familiei zuzendutako heziketa-programa) eta Incredible Years (jarrera-arazoak garaiz prebenitzeko eta gaitasun sozial eta emozionala sustatzeko programa) jarri dira martxan.

## Prestazio ekonomikoak

- 2014an, 12.051 lagunek jaso dituzte **mendekotasunari buruzko 39/2006 Legean aurreikusitako prestazioak.** Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak (LPPE) % 32,53ko hazkundea izan du aurreko urtearekiko, neurri handi batean, 2013an, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea mendekotasun-maila guztietara zabaldu zelako. Bestalde, pixka bat murriztu da familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa (FZPE) jasotzen duten lagunen kopurua (% 5,11).

  2014an Gipuzkoan mendekotasun-prestazioak jaso zituzten lagunen banaketari dagokionez, % 76k familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa (FZPE) jaso zuten, % 22k laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) eta % 2k zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (ZLPE).

- **Diru-sarrerak bermatzeko laguntza**, hiru urteko erroldatzea ziurtatu ezin izanagatik babes-saretik kanpo geratu diren pertsonen gutxieneko diru-sarrerak bermatzera zuzendua, 2012an jarri zen martxan, eta 2014ko azken hilabeteetan, egonkortzeko joera izan du, hurrengo grafikoan ikusten denez:




## Garapenerako lankidetza

- Ildo estrategiko bat jarri da martxan, eta horren bidez, lankidetza zuzeneko sei hitzarmen formalizatu dira:

  - Euskal Fondoa (Sahara), 60.000 eurokoa
  - Euskadiko GKEn Koordinakundea, 35.000 eurokoa
  - Forum Mulher, 115.000 eurokoa

- Euskal Herriko Mundu Martxa, 50.000 eurokoa
- Euskal Fondoa (Kuba), 115.000 eurokoa
- Vía Campesina, 115.000 eurokoa

# 2.1.3 Programa eta zerbitzuen bilakaeraren azterketa

## Datu orokorrak

Zerbitzu- edo prestazio-motaren bat jasotzen duten pertsonen kopurua hazi egin da pixka bat 2014aren amaierako datuekin alderatuta. Guztira 25.234 lagunek jaso dituzte zerbitzu edo prestazioak, eta horrek % 3,85eko hazkundea adierazten du aurreko urtearekiko.

Zentro-mota bakoitzeko egonaldiak aztertu ondoren, grafiko honetan irudikatzen den bilakaera izan dute egoitza-baliabideek:




## Mendekotasun- eta desgaitasun-egoeran daudenei emandako arreta

2014an, Balorazio Sailak hausnarketa-prozesu garrantzitsua egin du bere jarduerari buruz, prozesu guztien publifikazioaren oinarriak definitzeko aurretiazko pauso gisa (eredu teorikoa, profesionalen profila, balorazioak egiten diren lekuak, irizpide teknikoak... ). Hausnarketa horren ondorioz, besteak beste, erabaki da, publifikazio-prozesuari buruzko behin-betiko erabaki bat hartu bitartean, bateratu egingo direla desgaitasunak eta mendekotasunaren balorazioak.

## Mendekotasunaren arreta

- Zenbait urtez mendekotasun-balorazioen kopuruak beheranzko joera txikia izan ondoren (Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasunaren Arretarako legea indarrean sartu eta lehenengo hiru urteetan izandako eskaera mordoaren ondoren), 2014an, geratu egin da beheranzko joera hori, eta hazi

egin dira balorazio-eskaerak. Bilakaera demografikoarekin lotutako azalpen posible batzuk alde batera utzita (populazioaren zahartze progresiboa... ), krisi ekonomikoa, 1.1 mendekotasun-mailakoek 2015ean Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako prestazio eskubidea jaso ahal izatea... dira hazkunde hori azaltzen duten arrazoiak.

Mendekotasunaren balorazio-eskaerei erantzuteko batez besteko denbora 27,3 egunekoa izan zen 2014an, aurreko urtekoa baino askoz ere baxuagoa (45 egun).

- Gipuzkoako zahar egoitzen okupazio-maila % 98,74koa izan zen, aurreko urteetakoaren antzekoa, eta eguneko zentroek % 93,5eko okupazio-maila izan zuten (2013koa baino % 2 handiagoa).

- Egoitzetan sartzeko itxarote-zerrenda hazi egin da, zenbait urtez beheranzko joera izan ondoren. Horrek lotura estua du 2014an zerbitzuak jasotzeko eskaerek izandako hazkundearekin: hazkundea % 11koa izan da zahar-etxeen kasuan (2013an 1.633 eskaera izan ziren eta 2014an 1.812), eta % 22koa eguneko zentroen kasuan (719 eskaera 2013an eta 877 2014an).

- Eskaeraren eta zerbitzurako sarbidearen arteko batez besteko itxarote-denbora murriztu egin da egoitzetako ohiko profileko plazetarako nahiz eguneko zentroetarako. Profil soziosanitarioko plazen sarbiderako itxarote-denborak gora egin du pixka bat, eta profil psikogeriatrikoko plazen sarbiderako itxarote-denborak % 86 igo dira (2013an 111 itxarote-egun behar ziren batez beste, eta 2014an, 207).

- Txandatze-indizeak 1,30ekoa izaten jarraitzen du zahar egoitzen kasuan, eta eguneko zentroetakoak gora egin du (2013an 1,44koa izan zen, eta 2014an, 1,57koa).

## Desgaitasunen arreta

- 2014an, zentro berri bat ireki da: Irungo Arrupenea. Zentro horretan, zahar egoitzako 14 plaza eta eguneko zentroko 17 plaza hitzartu dira.

- Gipuzkoako desgaituentzako egoitzek % 97,70eko okupazioa izan zuten 2014an, 2013koa baino pixka bat gutxiago (% 99,61), eta eguneko zentroek % 98,40koa (beraz, % 1,17ko hazkundea izan da 2013arekiko).

- Egoitzetan sartzeko itxarote-zerrenda % 13 hazi da eta eguneko zentroetakoa % 37. Halaber, % 9 hazi dira egoitzetako eskaerak eta % 22 eguneko zentroetakoak.

- Eskaeraren eta zerbitzurako sarbidearen arteko batez besteko itxarote-denbora % 13 hazi da egoitzen kasuan eta % 42 eguneko zentroen kasuan.

- Egoitzetako txandatze-indizea ez zen ia aldatu 2013koarekiko (2013an 1,05ekoa eta 2014an 1,04koa). Eguneko zentroetan, hazkunde txiki bat izan du txandatze-indizeak (2013an 1,10ekoa eta 2014an 1,12koa).

- 2014an 5.916 desgaitasun-balorazio egin ziren; aurreko urtean baino % 18 gehiago. Eskaeren kopuruaren hazkunde txikia eta aurreko ekitaldiaren amaieran sortutako espediente-pilaketa dira hazkunde horren arrazoi nagusiak.

## Buruko gaitzak dituzten pertsonen arreta

- Buruko gaitzak dituzten pertsonentzako Gipuzkoako egoitzek % 98,44ko okupazioa dute (2013an, % 96,88koa), eta eguneko zentroek % 97,80koa (kasu horretan ere, 2013koa baino handiagoa izan da, % 95,61eko okupazioa baitzuten).

- 2013ko datuekin alderatuta, egoitzetara sartzeko itxarote-zerrendak % 6ko hazkundea izan du eta eguneko zentroetakoak %55ekoa. Egoitzetako sarbide-eskaera mantendu egin da, eta eguneko zentroen kasuan %13 jaitsi dira eskaerak.

- Eskaeraren eta zerbitzurako sarbidearen arteko batez besteko itxarote-denbora % 13 hazi da egoitzen kasuan eta % 27 eguneko zentroen kasuan.

- Txandatze-indizeak igoera txiki bat izan du. 2014an, 1,25ekoa izan zen egoitzetan (2013an 1,19koa). Eguneko zentroen kasuan 1,18koa izan da (2013an 1,14koa izan zen).

## Gizarteratzea

- Gipuzkoako gizarteratze-etxeek %92ko okupazio-maila dute (2013an, % 86koa). Eguneko zentroetako okupazio-maila ez da ia aldatu: 2014an % 94koa izan zen, eta 2013an, % 95ekoa.

- Gizarteratze-etxeetara sartzeko itxarote-zerrenda %43 igo da eta eguneko zentroen kasuan %58 jaitsi da. Egoitzetarako eskaera-kopurua mantendu egin da.

- Txandatze-indizeak behera egin du bai egoitzetan (2013an 2,18koa izan zen eta 2014an 1,93koa) bai eguneko zentroetan (2013an 1,79koa izan zen eta 2014an 1,75ekoa).

## Indarkeria matxista jasaten duten emakumeak

- Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen etxeetan 137 lagun hartu dira 2014an (2013an baino % 59 gehiago).

- Txandatze-indizeak nahiko hazkunde handia izan du (2013an 4,05ekoa izan zen eta 2014an 7,2koa izan da).

## Haurtzaroaren eta nerabezaroaren babesa

- Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeei zuzendutako Gipuzkoako egoitzek % 91,3ko okupazioa dute, 2013koaren antzekoa (% 90,82).
- Txandatze-indizea igo egin da: 2,20a izan zen 2013an eta 2,54koa izan da 2014an.

- Nazioarteko adopzioek beheranzko joera mantentzen dute. Eskaerak % 36 jaitsi dira eta egindako adopzioak % 10,5.

- Familia-harrera mantendu egin da, eta goranzko joera txiki bat izan du (% 1,85eko hazkundea 2013arekiko).

**Prestazio ekonomikoak**

- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak (LPPE) % 32,53ko hazkundea izan du aurreko urtearekiko. Familia-inguruneko zainketen prestazio ekonomikoak (FZPE), aldiz, beheranzko joera txikia agertu du (% 5,11koa 2013arekiko).

- Pentsio kontributiboak jasotzen dituzten pertsonen kopurua % 2,66 hazi da; desgaituak gizarterako laguntzak eta pentsio ez kontributiboak jasotzen dituztenen kopurua, berriz, % 6 inguru.

- Diru Sarrerak Bermatzek Laguntzak, hasierako hazkundearen ostean, egonkortzeko joera agertu du 2014ko bigarren seihilekoan.

## 2.1.4 Diru-laguntzak:

2014an, diru-laguntza hauek deitu eta eman dira:

- *Gizarte Politikako Departamentuaren 2014ko gizarte-ekimenerako laguntzen deialdia.*

*https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/01/17/c1400362.pdf*

- *2014ko ekainaren 26ko 491/2014 Foru Agindua, Gizarte Politikako Departamentuaren 2014rako laguntza-deialdiak ebazten dituena.*

*https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/07/02/c1406176.pdf*

- *Garapenerako lankidetzaren arloko diru-laguntzen oinarriak eta 2014ko deialdia.*

*https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/03/06/c1402052.pdf*

- *2014ko ekainaren 12ko 460/2014 Foru Agindua, garapenerako lankidetzaren arloko 2014ko diru-laguntzen deialdia ebazten duena.*

*https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/06/18/c1405697.pdf*

- *2014ko deialdia, Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa eremuko udaletako gizarte zerbitzuen mankomunitatei diru laguntzak emateko.*

*https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/06/09/c1405327.pdf*

- *2014ko irailaren 3ko Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa eremuko gizrte zerbitzuen mankomunitatei diru laguntzak emateko deialdia ebazten duena.*

## 2.1.5 2014an onartutako arauak

### Foru-arauak

- 2014ko azaroaren 6ko 12/2014 Foru Araua, gizarte-zerbitzuak kudeatzeko, eskaintzeko eta betetzeko «Kabia» foru-organismo autonomoa eratzen duena.

  https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/11/07/c1410140.pdf

### Foru-dekretuak

- 2014ko martxoaren 4ko 5/2014 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko bigarren mailako arretako gizarteratze-baliabideak jasotzeko prozedura arautzen duena.
  https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/03/18/c1402536.pdf
- 2014ko uztailaren 8ko 22/2014 Foru Dekretua, 2012ko ekainaren 19ko 31/2012 Foru Dekretua, diru-sarrerak bermatzeko laguntza ezartzen duena, aldatzen duena.
  https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/07/14/bc140714.htm
- 2014ko urriaren 21eko 34/2014 Foru Dekretua, desgaitasunen bat duten pertsonei laguntzeko zakurren erregistroa sortzen duena eta horiek ziurtatzeko prozedura zehazten duena (2014ko urriaren 28ko GAO).
  https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/11/07/c1410140.pdf
- 2014ko azaroaren 4ko 39/2014 Foru Dekretua, Gizarte Politikako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko 2012ko apirilaren 2ko 13/2012 Foru Dekretua aldatzen duena.
  https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/11/10/bc141110.htm
- 2014ko azaroaren 4ko 38/2014 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren oinarrizko departamentu-egiturari buruzko 2011ko uztailaren 19ko 24/2011 Foru Dekretua aldatzen duena (Organismo Baimenduen Zuzendaritza Nagusia sortzeko aldaketa)

  https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/11/10/c1410112.pdf
- 2014ko abenduaren 22ko 46/2014 Foru Dekretua, «Kabia» foru-organismo autonomoaren estatutuak onartzen dituena. GAO 2015/02/02.
  https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2015/02/02/c1500828.pdf

### Foru-aginduak

- 2014ko urtarrilaren 22ko 25/2014 Foru Agindua, egoitza-zerbitzuetarako, zahar egoitzetarako eta baliabide soziosanitarioetarako erabiltzaileko eta eguneko gehienezko ekarpenak onartzen dituena.
  https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/01/28/c1400609.pdf

- 2014ko azaroaren 7ko 855/2014 Foru Agindua, zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuen zentroak baimentzeko zerbitzu-karta onartzen duena.
  https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/11/13/c1410178.pdf

- 2014ko abenduaren 22ko 1010/2014 Foru Agindua, 2015erako gizarte-zerbitzuen arloko ikuskapen-plana onartzen duena.
  https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2015/01/05/c1411725.pdf

# 2.2 Departamentuko zuzendaritzen beste jarduera eta zerbitzu batzuk

## 2.2.1 Baliabideen kudeaketa

2014an, mendekotasunaren eta desgaitasunen balorazio-zerbitzua zuzenean kudeatzeko behar den egitura sortzeko Lan Plana lantzen jarraitu da. Plan horretan, langileak zuzenean kontratatzea aurreikusten da, aurrekontuaren eskuragarritasunaren arabera.

2014an, kontratu hauek sinatu ditu **idazkaritza teknikoak**:

- ***Adinekoak:***

- Lurraldean mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintza-familiei laguntzeko programa.
- Esku-hartze psikosozialeko programa Eibarko gerontologia-zentroan.
- Mendekotasun-balorazioa eskatzen duten pertsonei buruzko informazioa lortzeko zerbitzua.
- Eibarko gerontologia-zentroan arreta farmakologikoko zerbitzua.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen dituztenei segimendua egiteko eta laguntza emateko eredu berri bat aztertzeko eta definitzeko zerbitzua.
- Eibarko gerontologia-zentroko garbitegi-zerbitzua.
- Ur- eta berokuntza-sarea berritzeko lanak Eibarko gerontologia-zentroan.
- Soraluzeko eguneko zentroko lokala egokitzeko lanak.
- Alai-Etxe zahar egoitzaren urbanizazioa.
- Laguntza teknikoen hornikuntza.
- Mendekotasun-egoeran dauden adinekoen eguneko zentroak erabili eta kudeatzeko emakidak Astigarragan, Beasainen, Errenterian, Getarian, Lezon, Orion eta Urnietan.

- ***Desgaitasunen bat duten pertsonak:***

- Laguntza teknikoen hornikuntza.

- ***Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonak:***

- Babesgabetasun-egoeran dauden adingabekoen familia-harrerarako laguntza teknikoa.
- Irisasi eta Uralde larrialdi-zentroen emakida.

- ***Foru-larrialdiak:***

- Foru-larrialdiak koordinatzeko zerbitzua.

- ***Orokorrak:***

- Pasaiako Casa del Mar ostatuko atezain-zerbitzua

Halaber, 116 prestakuntza-ekintza egin dira. Horietan, 702 lagunek hartu dute parte, eta 9.322 ordukoak izan dira guztira.

**Kudeaketa ekonomikoari** dagokionez, 2014an 241 hitzarmen kudeatu dira.

Hurrengo koadroan, 2014ko kontratu eta hitzarmenen kudeaketari dagokion sektore-banaketa eta aurrekontu-esleipena zehazten da:

| KOLEKTIBOA | HITZARMENAK | | KONTRATUAK | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | AURREKONTUA | Kop. | AURREKONTUA | Kop. | AURREKONTUA |
| ADINEKOAK | 161 | 96.228.554 € | 20 | 19.156.300 € | 181 | 115.384.855 € |
| DESGAITASUNEN BAT DUTEN P. | 18 | 23.118.079 € | 9 | 2.911.481 € | 27 | 26.029.561 € |
| BURUKO GAITZAK DITUZTEN P. | 9 | 5.312.170 € | 4 | 838.620 € | 13 | 6.159.790 € |
| BABESGABETASUN-EGOERAN DAUDEN ADINGABEAK | 14 | 8.845.136 € | 17 | 23.784.434 € | 31 | 32.629.571 € |
| GIZART., INDAR. MATX. ETA GIZARTE-LARR. | 28 | 19.170.602 € | 3 | 1.616.459 € | 31 | 20.787.062 € |
| GARAPENERAKO LANKIDETZA | 6 | 540.000 € | 0 | 0 € | 6 | 540.000 € |
| OROKORRAK | 5 | 349.042 € | 2 | 292.515 € | 7 | 641.557 € |
| **GUZTIRA** | **241** | **153.572.585 €** | **55** | **48.599.813 €** | **296** | **202.171.398 €** |

## 2.2.2 Ikuskapenak eta baimenak

- 2014an, 370 ikuskapen egin ziren, banaketa honen arabera:

| BALIABIDEA | IKUSKAPEN-KOP. |
|---|---|
| ZAHAR EGOITZAK | 209 |
| DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZAK | 60 |
| BURUKO GAITZEN BAT DUTEN PERTSONENTZAKO ZENTROAK | 29 |
| BABESGABETASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ZENTROAK | 67 |
| GIZARTERATZE-ZENTROAK | 2 |
| INDARKERIA MATXISTA JASATEN DUTEN EMAKUMEENTZAKO ZENTROAK | 3 |
| **GUZTIRA** | **370** |

- 2014an, aurretiazko 4 baimen-emakida eta 10 funtzionamendu-baimen eman dira. Aurretiazko baimenak ebazteko batez besteko epea 29 egunekoa izan da eta funtzionamendu-baimenena 14 egunekoa.
- 10 funtzionamendu-baimen eskatu dira eta eskatutako guztiak eman dira.

## 2.2.3 Inbertsioak

Gizarte-arloko Inbertsio eta Ekimen alorrak gizarte-ekimenekiko lankidetza landu, garatu eta kontrolatzen du, eta Departamentuak gizarte-ekipamenduak –propioak nahiz hitzartuak– eraikitzeko eta egokitzeko egin beharreko inbertsioak zehazten ditu. Halaber, gizarte-ekintzarekin loturiko boluntariotza-lana sustatzeaz eta zentro propioak kudeatzeaz arduratzen da.

Halaber, inbertsio-alorraren lana da Departamentura atxikitako zentroen segimendua (80 higiezin inguru).

### 1º) Inbertsioak

- Departamentuarenak propio ez diren zentroetako inbertsioak sustatzeko, 1.438.606 euroko balioa duten proiektuak finantzatu dira 2014an. Honako hau izan da inbertsio horien helburua jarduera-mota bakoitzeko:

| JARDUERA-MOTA | ADINEKOAK | DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| EGOITZEN SORRERA | 338.606 € | | 338.606 € |
| ZENTRO OKUPAZIONALEN SORRERA | | 760.000 € | 760.000 € |
| EGOKITZE-LANAK | | 340.000 € | 340.000 € |
| **GUZTIRA** | **338.606 €** | **1.100.000 €** | **1.438.606 €** |

- Departamentuko zentro propioetan egindako inbertsioei dagokienez, 4.774.212,68 euroko gastua sortu da guztira. Irudi honetan zehazten da horien helburua jarduera-mota bakoitzeko:

INBERTSIOAK. JARDUERA-MOTA BAKOITZEKO GASTUA 2014an



## 2º) Gizarte-ekimena

Lurralde Historiko honetako gizarte-ekimena sustatzeari dagokionez, 2014an, gizarte-ekimenaren arloan jarduten duten eta Gipuzkoako Lurraldeko Historikoko gizarte-zerbitzuen alorrean lan egiten duten irabazi asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak emateko deialdia onartu zen.
Diru-laguntzen hiru ildo jasotzen dira; zehazki, hauek: esku-hartze sozialeko programak –erakunde eskatzaileen jarduera guztiak biltzen dituztenak–, prebentzio- eta sentsibilizazio-ekintzak eta ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak.
2014ko laguntzen deialdiaren ondoren, 816.646,60 euroko diru-laguntzak eman dira, eta honela banatu dira:

| KOLEKTIBOA | 1. ILDOA | | 2. ILDOA | | 3. ILDOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | PROG. KOP. | DIRU-LAGUNTZA | PROG. KOP. | DIRU-LAGUNTZA | PROG. KOP. | DIRU-LAGUNTZA |
| DESGAITASUN EDO /ETA MENDEKOTASUNEN BAT DUTEN P. | 96 | 487.513.60 € | 27 | 72.867,00 € | 1 | 5.000 € |
| GIZARTERATZEA | 18 | 151.419,00 € | 8 | 17.343,00 € | 1 | 5.000 € |
| BABESGABETASUN-EGOERAN DAUDEN ADINGABEAK | 4 | 38.128,00 € | 0 | 0,00 € | 0 | 0,00 € |
| ADINEKOAK | 8 | 16.498,00 € | 0 | 0,00 € | 0 | 0,00 € |
| INDAR. MATX. JASAN DUTEN EMAKUMEAK | 2 | 13.109,00 € | 0 | 0,00 € | 0 | 0,00 € |
| FAMILIA | 1 | 5.751,00 € | 2 | 3.018,00 € | 0 | 0,00 € |
| BESTE BATZUK | 0 | 0,00 € | 1 | 1.000,00 € | 0 | 0,00 € |
| GUZTIRA | 129 | 712.418,6 | 38 | 94.228 € | 2 | 10.000 € |

## 3º) Asoziazionismoa eta boluntariotza

- Urtean zehar, boluntariotzarekin eta elkarteen kudeaketarekin loturiko 5 ikastaro egin dira, eta horietan, 84 lagunek hartu dute parte.

- Gizalde boluntariotza sustatzeko programa garatzeko Hezkide Eskolarekin sinaturiko hitzarmenaren bidez, ekintza hauek egin dira:

  - 1.110 bisita jaso dira Boluntariotza Bulegoan
  - 134 lagun boluntario-lanak egiten hasi dira erakunderen batean
  - Erakundeekin 38 bilera egin dira boluntariotza-lanaren, kolektiboen eta programen berri izateko
  - Boluntariotzari buruzko 11 hitzaldi-tertulia egin dira, eta 238 lagunek parte hartu dute horietan.
  - “Ireki begiak" kanpaina egin da Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, gazteek boluntario gisa hainbat erakundetan parte hartzea sustatzeko. 15 eta 20 urte arteko 676 gaztek parte hartu dute; zehazki, 61 ekintza egin dira 11 ikastetxetan.

- Partaidetza eta lankidetza izan da Boluntariotzako Euskal Kontseiluarekin eta SAREGINEZ Gipuzkoako boluntario-elkarteen koordinakundearekin.

- Bestalde, Gipuzkoako urteko boluntariotza-saria Koldo Aulestia AFAGIkko presidenteak jaso zuen 2014an Alzehaimer-a duten pertsonekin egindako lanagatik.

## 4°) Kudeaketa propioa dute zentro atxikiak

### *4.1. Egogain gerontologia zentroa*

Eibarko Egogain gerontologia-zentroak zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Egoitza: 155 plaza.
- Adinekoentzako eguneko zentroa: 28 plaza.
- Desgaitasunen bat duten pertsonentzako eguneko zentroa: 10 plaza.
- Buruko gaitz larriak dituzten pertsonentzako egoitza: 13 plaza.

- 2014an, eguneko zentroa hobetzeko lanak amaitu ziren, eta ur- eta berokuntza-zirkuituak aldatzeko lanak hasi zituzten.
- Apirilean, aurreko ekitaldian sorturiko lan-poltsa hasi ziren erabiltzen zaintzaileen plazak aldi baterako betetzeko (66 izangaiek osatutako zerrenda).
- Lehiaketa hauek esleitu dira: podologia eta ur- eta berokuntza-zirkuituak aldatzeko lanak.

### *4.2. Pasaiako Casa del Mar ostatua*

Pasaiako Casa del Mar ostatuak ostatu ematen die iragaitzazko marinelei, portuetan nahiz itsasontzietan. Horretarako, 5 logela bikoitz eta 4 banakako dituzte.

2014an, 2.714 gau egin zituzten guztira.

## 2.2.4 Garapenerako lankidetza

Nazioarteko Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza legegintzaldi honetan sortu zen eta Gizarte Politikako Departamentuaren barruan dago. Lankidetza-politika publiko propioa finkatzea eta diputazioaren barruan berezko eragile bihurtzea da bere helburua, zuzenean edo eragile estrategikoen bidez ekintzak eginez.

Otsailean argitaratu zen 2014ko **diru-laguntzen deialdia**, eta **3.098.600,00 euroko** aurrekontu-hornikuntzarekin.

32 proiekturi eman zaizkie laguntzak, eta honela banatu dira:

| KOLEKTIBOA | AURKEZTURIKO PROIEKTUAK | AURKEZTURIKO AURREKONTUAK | ONARTURIKO PROIEKTUAK | EMANDAKO AURREKONTUAK |
|---|---|---|---|---|
| **I. ERANSKINA:** HEGOALDEKO HERRIALDE POBRETUETAKO PROIEKTUAK | 39 | 5.547.313,60 € | 15 | 2.169.020,00 € |
| **II. ERANSKINA:** GIZARTE-TRANSF. ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA-PROIEKTUAK | 23 | 1.732.269,83 € | 9 | 750.000,00 € |
| **III. ERANSKINA:** EKIMEN EDO EKINTZA ZEHATZEI EMANDAKO LAGUNTZAK | 17 | 338.367,14 € | 8 | 179.580,00 € |
| **TOTAL** | **79** | **7.617.950,57 €** | **32** | **3.098.600,00 €** |

Halaber, lankidetza zuzeneko ildo bat jarri zen martxan 2014an, eta haren bidez, beste bost lankidetza-hitzarmen formalizatu dira:

| LANKIDETZA ZUZENA | |
|---|---|
| FORUM MULHER MOZAMBIQUE (Emakumeen Mundu Martxaren Nazioarteko Idazkaritza) | 115.000 € |
| ZIMBABWE SMALL HOLDER ORGANIC FARMER'S FORUM (ZIMSOFF), (Vía Campesina-ren Nazioarteko Idazkaritza Operatiboa) | 115.000 € |
| EUSKAL FONDOA - KUBAKO LA HABANA-KO HISTORIAGILEAREN BULEGOA | 115.000 € |
| EUSKADIKO GGKE-N KOORDINAKUNDEA | 35.000 € |
| EUSKAL FONDOA – SAHARAREKIN KOORDINATZEKO UNITATEA | 60.000 € |
| EUSKAL HERRIKO EMAKUMEEN MUNDU MARTXA | 50.000 € |
| ETXALDE, NEKAZARITZA IRAUNKORREKO ELKARTEA | 50.000 € |
| **TOTAL** | **540.000 €** |

## 2.2.5 Organismo autonomoak

### 2.2.5.1 Uliazpi Fundazioa

8/1989 Foru Arau bidez sorturiko Gipuzkoako Foru Aldundiko organismo autonomoa da. Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren eta adimen-desgaitasunen bat duten pertsonen bizi-kalitatea garatzen laguntzeko zerbitzuak eta laguntzak ematea da organismoaren helburua.

277 lagun inguruk egiten dute lan Uliazpin, hainbat zerbitzu eta zentrotan banatuta.

2014an Uliazpik emandako zerbitzuen artean, hauek aipatu behar dira: Egoitza- edo etxebizitza-arreta (219 plaza); adingabekoentzako etxebizitza-zerbitzua (6 plaza); eguneko arreta (289 plaza); familia-atsedenaldirako aldi baterako egonaldiak (3.641 egonaldi); etxebizitzara zuzenduriko laguntza (7 plaza); eta laguntza teknikoa.

Zerbitzu horietako gehienak zentroen bidez eskaini dira: Donostia eta Ategorrieta (Donostia), Fraisoro (Zizurkil), Zubieta (Hondarribia), Dr. Zubillaga (Bergara), eta Eibarko Egogain zentroko solairu bat erabili da.

2014an, Fraisoro eguneko zentroko 15 plazak bete dira eta familiei oporraldiak emanez lagundu zaie, Donostia, Fraisoro, Zubieta eta Ategorrietako zentroetan.

Fundazioaren kudeaketa-sistema osatzen duten elementuen artean, 2014ko ekitaldian egindako jarduera hauek azpimarratu behar dira:

- 2014-2015rako Kudeaketa Plana garatzea
- FEAPS kalitate-ebaluazio sisteman oinarritutako autoebaluazioa martxan jartzea (maila xehatua)
- Aginte-koadro integrala berrikustea
- Euskara Planaren diseinua

- Hitzarmen kolektiboaren negoziazioa

### 2.2.5.2 Kabia

Kabia organismo autonomoa 2014an sortu zen, modu mailakatuan, Lurraldeko adineko pertsonei zuzendutako 16 udal egoitzak kudeatzeko. Lehenengo, Villabonako, Zumaiako, Elgoibarko, Lasarte-Oriako eta Azkoitiko egoitzak hartuko ditu bere gain Kabiak. Gipuzkoan gizarte-zerbitzuak zuzenean kudeatzeko eredurantz pausoak ematera bideratutako tresna garrantzitsua da.

## 2.2.6 Espazio soziosanitarioa

Espazio soziosanitarioaren barruan daude, osasun-arazo edo muga funtzional larriak eta/edo gizarte-bazterketa arriskua izateagatik, aldi bereko osasun- eta gizarte-arreta koordinatua eta egonkorra  eta arretaren jarraitutasun-printzipiora egokitutako arreta behar duten pertsonei zuzendutako zainketak.

2014an, hainbat ekintza eta proiektu egin ziren; horietatik, hauek azpimarratu behar dira:

- **Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordearen jarduera 2014an:**

    - Gurutze Gorriko eta Argixao-ko egoitza-unitate soziosanitarioetarako kasuen balorazioa: 2014an, egoitza-unitate soziosanitarioetako 283 kasu baloratu dira.
    - Buru-gaixotasun larriak, prozesu infekzio-kutsakorrak edo politoxikomaniak diagnostikatuak dituzten pertsonak baloratu dira, baita buru-gaixotasun, adimen-desgaitasun eta jarrera-asaldura  kasuak ere: 2014an, 145 kasu baloratu dira.
    - Eskaeren kudeaketarako Extranet-a jarri da martxan.

- **Erkidego mailako proiektu soziosanitarioetan parte-hartzea.** Proiektu horietan hiru foru-aldundiek hartu dute parte, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailarekin batera, eta Etorbizi Fundazioak finantziatuta:

- **Gipuzkoako Lurralde Historikoan arreta soziosanitarioa garatzeko** akordioak **(Arreta Soziosanitarioari buruzko Gipuzkoako Plangintza Eragilea).**

- Proiektu eta akordio soziosanitarioetan parte hartzea, Osasun Erakunde Integratuen barruan sorturiko **batzorde soziosanitarioen** bidez.

## 2.2.7 Informazio estatistikoa

- Hainbat estatistika eta txosten egin da, bai Extranet-en bidez partekatzeko bai barne-erabilerarako. Halaber “Eskaintza eta jarduerari” buruzko txostenak egin dira, Departamentuko zerbitzuen eskariaren eta eskaintzaren bilakaerari buruzko datu garrantzitsuenak biltzeko.

- Bestalde, informazio kuantitatiboa eman zaie hala eskatu duten kanpoko erakundeei: Arartekoa, IMSERSO, Emaiker, Eusko Jaurlaritza, udalak, etab.

- 2014an, SIISekin elkarlanean, gizarte-zerbitzuei buruzko datu-bankua sortzeko proiektua diseinatzen jarraitu da, **BEHAGI** Gipuzkoako Gizarte Behatokiaren esparruan.

- **Emakunde**k koordinatutako informazio-sistemen taldean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren euskal behatokiaren sail arteko talde teknikoaren lan-esparruan, indarkeria matxista jasaten duten emakumeei arreta emateko adierazleak homogeneizatzeko lan bat egiten ari dira.

### *2.2.8 Ikerketa eta ezagutzaren kudeaketa*

- **Ikerbegi**ren funtzionamendua azpimarratu behar da. Bertan parte hartze dute Lurraldeko gizarte-zerbitzuekin loturaren bat duten sektore publikoko, enpresa munduko, unibertsitateko eta hirugarren sektoreko ordezkariek. 2014an, ikerketak eta azterketak egiteko lehentasunak finkatu dira, eta Behagi Gipuzkoako Gizarte Behatoki berriko datuak jasotzeko irizpideak aurkeztu eta aztertu dira.

- Parte hartzen duten erakundeekin SiiSekin lankidetzan, Desgaitasunei Arreta emateko Eredua hasi dira diseinatzen.

- Halaber, Deustuko Unibertsitatearekin **Gizarte Mintegien Proiektuari** jarraipena emateko hitzarmena sinatu da. Gizarte zerbitzuen alorrean erantzukizunak dituzten eta aritzen diren hainbat eragileren artean Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman giltzarriak diren alderdiei buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko gunea da

  2014an, bi funtsezko alderdi aztertu ziren: Gizarte-zerbitzuen iraunkortasuna eta etxez etxeko laguntzen etorkizuna gure lurraldean, gai horretan eskumenak dituzten erakundeekin eta profesionalekin elkarlanean.

### *2.2.9 Hobekuntza-prozesuak*

- Azpimarratu behar da mendekotasunak eta desgaitasunak baloratzeko zerbitzuaren erreforma lantzen ari direla eta kanpoko alderdien gaineko kontrol handiagoa ezarri nahi dela. 2014an, zerbitzuak zuzenean kudeatzeko behar den egitura sortzeko Lan Plana lantzen jarraitu da. Plan horretan, langileak zuzenean kontratatzea aurreikusten da.

- 2014an, Plangintza Atalean, Informazio Sistema Hobetzeko Plana jarri da martxan, Gipuzkoako gizarte-zerbitzuen eskaintzarekin eta eskariarekin lotutako informazioaren tratamendua eta hedapena optimizatzeko helburuarekin.

  Planaren helburu nagusia da gizarte-zerbitzuen alorrean sistemaren kudeaketa hobetzea, informazio egiatia, eguneratua, berehalakoa, iraunkorra eta kalitatezkoa eskaintzeko.

2014an zehar, zehazturiko 6 helburuei dagozkien 20 ekintzak gauzatu dira. Besteak beste, Behagiren diseinu berria osatuko duten moduluak definitu dira, baita horietako bakoitzean aplikatuko diren adierazleak ere. Halaber, Izfe-rekin lankidetza egin da, etorkizunean adierazle horiei egokituko zaizkien datuak automatizatzeko.

- Gizarteratze-zentro eta -programetan arreta hobetzeko prozesua, bizi-kalitatearen ereduaren araberako tresna komunak definituz (PIA, etab.) .

- Indarkeria matxista jasaten duten emakumeei arreta emateko zerbitzuak hobetzeko prozesua.

# 2.3 Beste erakunde, departamentu eta erakunde batzuekin izandako partaidetza eta lankidetza

## 2.3.1 Beste erakunde, departamentu eta erakunde batzuekin izandako lankidetza

- Diputatu Nagusiaren Alorreko **Euskara Normalizatzeko eta Sustatzeko Zerbitzuarekin** lankidetzan, foru-politika komunak garatzen jarraitu da; besteak beste, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.

- Halaber, Diputatu Nagusiaren Alorreko **Berdintasun Zerbitzuarekin** batera, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana gauzatzen parte hartu da. Plan horretan, 2012-2020rako berdintasunaren arloko gizarte-politika garatzeko helburuak eta ekintzak jasotzen dira.

- **Foru Administrazioaren eta Funtzio Publiko Departamentuarekin** batera, lankidetza egin da hainbat alorretan: bulegoen antolakuntza, erregistro elektronikoa, kexa eta iradokizunen kontsultarako kudeaketa eta espediente elektronikoa. Halaber, langileen arrisku psikosozialak aztertzeko lan egin da, hobekuntza prebentiborako ekintzak martxan jartzeko.

- **Ogasun eta Finantza Departamentuarekin** lan egin da, aurrekontu parte-hartzaileak egiteko. Horien bidez, herritarrek proposaturiko hiru proiektu finantzatu dira. Halaber, Aurrekontuaren Genero Inpaktua Ebaluatzeko Txostena egiten parte hartu da.

- Eusko Jaurlaritzarekin, beste aldundiekin eta udalekin izandako koordinazioari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Legea egiteko Erakunde Arteko Batzordean parte hartu da. Besteak beste, Saileko Dekretuari eta Gizarte Zerbitzuen Mapari buruzko eztabaidan parte hartu da. Gai horretan, akordio bat lortu zen abenduaren 19an, zeinaren bidez testu horiek onartu ahal izango baitira 2015ean.

- Azken urteetan ohikoa denez, 2014an ere lankidetza egin da **Conseil Géneral des Pyrenées Atlantiques-CG64** erakundearekin, Mugaz gaindiko Lankidetzarako Alorraren laguntzari esker. Irun, Hondarribia eta Hendaiako eta gertuko herrietako gizarte-zerbitzuen arteko hurbilketa eta lankidetza landu da, haurren eta familien kasuei arreta emateko. Halaber, erabiltzaileek zerbitzuak jasotzeko eta koordainketarako informazioa trukatu da.

- Gunea sortu da, Gipuzkoako Berdintasunerako lehen Foru Kontseilua. Emakumeen partaidetza soziopolitikorako eta Diputazioarekin zuzeneko harremana izateko sortu da kontseilua.

- Indarkeria matxista jasaten duten emakumeei arreta emateko II. hitzarmenari segimendua emateko erakundearteko batzordean eta talde teknikoan parte hartu da.

## 2.3.2 Partaidetza-aholkuak

Gizarte Politikako Departamentuak hiru aholkularitza-kontseilu ditu. Kontsultarako organoak dira, eta Departamentuaren gizarte-politikak diseinatzen, martxan jartzen eta horiei segimendua egiten laguntzen dute. Kontseilu horiek osatzen dituzte Foru Aldundiko ordezkariek, hainbat sektoretako erakundeek, eskualdeko kontseiluek, Eusko Jaurlaritzak, udalek eta sindikatuek.

- **Adinekoen Kontseilua:** adinekoek eta adinekoekin lotutako elkarte eta erakundeek parte hartzen duten berariazko foroa.

- **Desgaitasunak dituzten pertsonen Kontseilua:** desgaitasunen bat duten pertsonek eta desgaitasunarekin loturiko elkarte eta erakundeek parte hartzen duten berariazko foroa.

- **Gizarteratzeko Aholkularitza Kontseilua:** baztertuta dauden edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonek eta bazterketarekin lotutako elkarte eta erakundeek parte hartzen duten berariazko foroa.

Adinekoen Kontseiluak lau osoko bilkura egin ditu 2014an eta Desgaitasunak dituzten pertsonen Kontseiluak eta Gizarteratzeko Aholkularitza Kontseiluak osoko bilkura bana egin dute.

# 3.-Baliabideak eta programak

## 3.1. BALORAZIOA, ORIENTAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

### DESKRIBAPENA

Mendekotasunen eta desgaitasunen balorazioaren bidez, mendekotasun- eta desgaitasun-mota eta -maila zehazten da, hartarako baliozkotutako tresna teknikoak aplikatuz. Funtzio hori funtsezkoa da mendekotasun edo desgaitasunen bat duten pertsonak legez aitortzeko, horiek larritasun-mailaren arabera antolatzeko eta gure departamentuak eskaintzen dituen zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko. Indarrean dauden baremo ofizialak eta baliabideetara bideratutako beste batzuk aplikatzen dira.

### 2014KO DATU ESTATISTIKOAK

### EGINDAKO BALORAZIOAK

| | GIZONEZKOAK | EMAKUMEZKOAK | GUZTIRA | 2013AREKIKO ALDEA |
|---|---|---|---|---|
| **MBB (Mendekotasuna baloratzeko baremoa)** | 3.845 | 6.242 | **10.087** | % 16,20 ▲ |
| **RAI** | 1.772 | 3.138 | **4.910** | % 9,87 ▲ |
| **DESGAITASUNA** | 3.218 | 2.692 | **5.910** | %17,98 ▲ |
| **GUZTIRA** | **8.835** | **12.072** | **20.907** | **%15,14** ▲ |

### 2010-2014KO BILAKAERA




### 2014AN EGINDAKO JARDUERA GARRANTZITSUENAK

- 2014an, Balorazio Sailak hausnarketa-prozesu garrantzitsua egin du bere jarduerari buruz, prozesu guztien publifikazioaren oinarriak definitzeko aurretiazko pauso gisa (eredu teorikoa, profesionalen profila, balorazioak egiten diren lekuak, irizpide teknikoak... ). Hausnarketa horren ondorioz, besteak beste, erabaki da, publifikazio-prozesuari buruzko behin-betiko erabaki bat hartu bitartean, bateratu egingo direla desgaitasunak eta mendekotasuna baloratzeko kontratazio-espedienteak.
